Bizkaia interbiak

Bizkaia foru aldundia diputación foral

ERANSKINA

Hitzarmena, zeinaren bidez formalizatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiak Interbiak Bizkaia SAMP foru-sozietateari egin beharreko transferentzia, energia-efizientziaren arloko jarduketen proiektua garatzeko.

Bilbo, 2022ko ……………………aren …..( a)

BILDU DIRA

Alde batetik Imanol Pradales Gil jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatua (aurrerantzean, BFA), erakunde horren izenean eta hura ordezkatuz, Ahaldun Nagusiaren 2019ko uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretuaren arabera.

Bestetik, Mikel Iriondo Bilbao, "INTERBIAK BIZKAIA, S.A.M.P. sozietatearen (IFK: A95212510) izenean eta ordainez. Sozietate horrek (aurrekoan, "Interbiak") Bilbon du egoitza (Kanariar Uharteak 19, 1.a), eta Bizkaiko Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dago (liburukia: 4176; liburua: 0; folioa: 40; orria: BI-34.561; inskripzioa: 1). Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2015eko irailaren 18an egindako bileran eman zitzaion jarduteko ahalmena, Andrés Mª. Urrutia Badiola Bilboko notarioaren aurrean 2016ko urtarrilaren 20an (protokolo zenbakia: 55) egindako ahalordetze-eskrituran xedatutakoa betez.

Ordezkatzen dituzten erakundeen izenean BERARIAZKO HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasuna aintzatetsi diote elkarri. Hauek dira hitzarmenaren aurrekariak:

ADIERAZI DUTE

**Lehenengoa.-** Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena dauka Bizkaiko errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki, artatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko, Gernikako Autonomia Estatutuaren 10.34. artikuluan aitortu eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluak eta Bizkaiko Errepideen martxoaren

ANEXO

Convenio por el que se formaliza la transferencia que la Diputación Foral de Bizkaia realiza a la sociedad foral Interbiak Bizkaia, S.A.M.P. para el desarrollo del proyecto de actuaciones en materia de eficiencia energética.

En Bilbao, a …… de …………………………. de 2022

REUNIDOS

De una parte, D Imanol Pradales Gil, Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia (en adelante DFB) actuando en nombre y representación de ésta, en virtud del Decreto Foral del Diputado General 101/2019, de 1 de julio de 2019.

De otra parte, D. Mikel Iriondo Bilbao en nombre y representación de la sociedad INTERBIAK BIZKAIA, S.A.M.P. (en lo sucesivo, *"Interbiak"*), con C.I.F. A95212510 con domicilio social en Bilbao, C/ Islas Canarias nº 19-1º, inscrita en el Registro Mercantil de Vizcaya, al Tomo 4176, libro 0, folio 40, Hoja BI-34.561, inscripción 1ª. Sus facultades resultan del acuerdo adoptado por el Consejo de Administración de la Sociedad en la reunión celebrada el 18 de septiembre de 2015, a tenor de lo dispuesto en la escritura de apoderamiento, otorgada ante el Notario de Bilbao, D. Andrés Mª. Urrutia Badiola, el día 20 de enero de 2016 y con el número 55 de su protocolo.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria, para la formalización del presente documento y, de común acuerdo,

MANIFIESTAN

**Primero,-** La Diputación Foral de Bizkaia es competente para la planificación, proyección, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de las carreteras de Bizkaia según se reconoce en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía de Gernika y dispone el art. 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, así

24ko 5/2021 Foru Arauaren 1. artikuluak eta horrekin bat datozenek xedatu bezala.

como según lo establecido en la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de Carreteras de Bizkaia.

Bigarrena.- Proiektu hau gauzatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak INTERBIAK BIZKAIA S.A.M.P. foru-sozietate publikoa du, eta jarduketa hori berariazko hitzarmen batean gauzatutako transferentzia baten bidez finantzatuko da. Interbiak erakundeak kontabilitate-araudi aplikagarriaren arabera erregistratuko ditu finantzatutako inbertsioak.

Segundo.- Para la ejecución de este proyecto, la Diputación Foral de Bizkaia cuenta con la sociedad pública foral INTERBIAK BIZKAIA, S.A.M.P., y dicha actuación se financiará mediante una transferencia instrumentalizada en un convenio específico, procediendo Interbiak a registrar las inversiones financiadas según la normativa contable aplicable.

Hirugarrena.- Interbiak-en xedea da, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak agintzen dizkion bide-azpiegiturak aztertzea, proiektatzea, eraikitzea, kontserbatzea, mantentzea, finantzatzea eta ustiatzea, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, bai eta aurreko eginkizunak betetzeko zuzenean edo zeharka beharrezkoak diren merkataritza-jarduerak garatzea ere.

Tercero.- Interbiak. tiene en su objeto social, entre otras actividades, la realización de estudios, proyección, construcción, conservación, mantenimiento, financiación y explotación, por sí misma o por terceros, de las infraestructuras viarias que se le encomienden por la Diputación Foral de Bizkaia, así como el desarrollo de cuantas actividades mercantiles sean necesarias, directa o indirectamente, para el ejercicio de las anteriores funciones.

Era berean, bere gain hartzen du Bizkaiko Lurralde Historikoko irisgarritasun-sistemaren barruan dauden eta Bizkaiko Foru Aldundiak agintzen dizkion beste azpiegitura batzuk eraikitzea.

Asimismo asume la construcción de otras infraestructuras pertenecientes al sistema de accesibilidad del Territorio Histórico de Bizkaia, que le sean encomendadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

Laugarrena.- Proiektuaren xedea energia-efizientziaren arloko jarduketen proiektua garatzea da.

Cuarto.- El objeto del proyecto es el desarrollo de actuaciones en materia de eficiencia energética.

Jarduerak barne hartzen ditu beharrezkoak diren zenbait jarduketa, energia-efizientziako eta -jasangarritasuneko eta digitalizazioko irizpideen arabera gidatutakoak, zeinak premiazkoak baitira instalazioen energia-kontsumoa eta ingurumen-inpaktua murrizteko. Horrez gain, Bizkaiko errepide eta tunelen kudeaketa, erregulazio-gaitasuna eta segurtasuna hobetuko dira.

La actuación comprende actuaciones necesarias guiadas por criterios de eficiencia y sostenibilidad energéticas y digitalización que son urgentes para reducir el consumo energético e impacto medioambiental de las instalaciones, al mismo tiempo que se mejora la gestión, la capacidad de regulación y la seguridad de las carreteras y túneles de Bizkaia.

Oraingo teknologiak, GPSL eta fluoreszentea, LED teknologiara migratuko dira argiteria-instalazioetan, indarrean dagoen araudira egokituz argi-balioak, eta kaxa elektriko zaharrenak eta akats teknikoak dituztenak berrituko dira, proiektatutako argi-instalazio berrietara egokituta.

Se realiza la migración de tecnología VSAP y fluorescente a tecnología LED en las instalaciones de alumbrado, adecuando los valores lumínicos a la normativa, en vigor, así como la renovación de los cuadros eléctricos más antiguos y con deficiencias técnicas, ajustada a las nuevas instalaciones lumínicas proyectadas.

Beharrezkoak diren jarduketok gauzatzeko, energia-efizientziako eta -jasangarritasuneko eta

Se trata de unas actuaciones necesarias que se realizan con criterios de eficiencia energética y

digitalizazioko irizpideak aplikatuko dira Bizkaiko errepideei lotutako argiztapen-instalazioetan. Hala, jarduketok posible egingo dute Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzko jadaneko Legean ezarritako konpromisoak betetzea, ingurumen-inpaktua eta lotutako emisioak murriztuz, eta BFAren energia-horniduren fakturan aurrezkiak sortzen lagunduko dute. Aldi berean, argi-mailak hobetuko dira, bai eta ukitutako aktiboen gaineko kudeaketa- eta erregulazio-gaitasunak ere.

digitalización de las instalaciones de alumbrado asociadas a las carreteras de Bizkaia, las cuales, además de posibilitar el cumplimiento de los compromisos establecidos en la Ley de Sostenibilidad Energética de Euskadi actualmente en vigor, reduciendo el impacto medioambiental y emisiones asociadas, contribuyen a generar ahorros en la factura de suministros energéticos de DFB, al mismo tiempo que se mejoran los niveles lumínicos y se mejoran las capacidades de gestión y regulación sobre los activos afectados.

Bosgarrena.- Hitzarmen honen xedea, izaera eta edukia kontuan hartuta, hitzarmenean ezarritako erlazioak ez daude sartuta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean (aurrerakoan, SPKL), zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora transposatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak. Horrez gain, esku hartu duten erakundeek ez dute merkatu bokaziorik, eta erakundeen arteko lankidetza argia ezarri da helburu erkideak lortzeko eta interes publikoa bermatzeko.

Quinta.- Atendido el objeto, naturaleza y contenido del presente convenio las relaciones establecidas en el mismo se encuentran excluidas de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por el que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante LCSP), habida cuenta además de la no vocación de mercado de las entidades intervinientes, estableciendo una inequívoca cooperación entre ellas para lograr objetivos comunes y garantizar el interés público.

Seigarrena.- Administrazio barruko hitzarmena da, hau da, administrazio publiko batek administrazio beraren mendeko zuzenbide publikoko erakunde batekin sinatutako hitzarmena da, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluak b) letrako bigarren atalean definitzen du.

Sexta.- Se trata de un convenio intradministrativo definido en el artículo 47, apartado segundo, letra b), de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (en lo siguiente LRJSP), es decir, un convenio firmado entre una Administración Pública con una entidad de derecho público dependiente de la misma administración.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Interbiak-ek komenigarritzat jotzen dute adostutako transferentzia gauzatzeko berariazko hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena honako klausula hauen bidez arautuko da.

Por todo lo expuesto, la Diputación Foral de Bizkaia e Interbiak estiman conveniente la suscripción del presente convenio específico que instrumentaliza la transferencia acordada y que se regirá por las siguientes cláusulas.

## KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen espezifiko honen xedea da energia-efizientziaren arloko jarduketen proiektua garatzeko Interbiak-i egin beharreko transferentzia arautuko duten baldintzak ezartzea.

Bigarrena.- Burutu behar diren jarduketak.

## CLÁUSULAS

Primera.- Objeto.

El presente Convenio Específico tiene como objeto establecer las condiciones que regularán la transferencia a Interbiak para el desarrollo del proyecto de actuaciones en materia de eficiencia energética.

Segunda.- Actuaciones a realizar:

a) Bizkaiko Foru Aldundiak burutu behar dituenak

A) Por la Diputación Foral de Bizkaia

Transferentzia bat egitea Interbiak sozietateari energia-efizientziaren arloko jarduketen proiektua gauzatzeko kostuengatik.

Realizar una transferencia a Interbiak por los costes de desarrollo del proyecto de actuaciones en materia de eficiencia energética.

B) Interbikak-ek burutu behar dituenak

B) Por Interbiak

Bere kabuz edo hirugarrenen bitartez beharrezko jarduerak egitea energia-efizientziaren arloko jarduketen proiektua gauzatzeko, hitzarmena indarrean egon bitartean.

Realizar por si misma o por terceros las actuaciones necesarias para el desarrollo del proyecto de actuaciones en materia de eficiencia energética, durante el tiempo de vigencia del convenio.

Onarpen akta sinatzen den unetik aurrera, eraikitakoa Aldundiko ondarearen parte izango da eta Aldundiaren betebeharra izango da hori kontserbatu eta mantentzea, albo batera utzi gabe agindutako jarduketen adjudikaziodunari kontserbazioaren alorrean eskatu ahal izango zaizkion betebeharrak.

Una vez finalizadas las actuaciones anteriores, lo ejecutado pasará a formar parte del patrimonio de la Diputación y siendo obligación de la Diputación su conservación y mantenimiento sin perjuicio de las obligaciones que en materia de conservación sean exigibles al adjudicatario de las actuaciones.

Hirugarrena.- Onartzen dituzten obligazioak eta konpromisoak.

Tercera.- Obligaciones y compromisos económicos asumidos

Bizkaiko Foru Aldundiak hamar milioi (10.000.000,00) euroko transferentzia egingo dio Interbiak sozietateari, 2022ko ekitaldiari dagokiona.

La Diputación Foral de Bizkaia realizará una transferencia a Interbiak por importe de diez millones (10.000.000,00) de euros, correspondiente al ejercicio 2022.

Sortutako gastuari aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa dago aurrekontu-partida honetan: PROGRAMA: 453113; ORGANIKOA: 1003; KONTZEPTUA: 74117; PROIEKTUA: 2007/0034 Energia-efizientzia.

Para hacer frente al gasto originado existe crédito adecuado y suficiente en la partida presupuestaria siguiente: PROGRAMA 453113; ORGÁNICO 1003; CONCEPTO: 74117 PROYECTO 2007/0034 Eficiencia energética,

INTERBIAK BIZKAIA, S.A.M.P. sozietateak Bizkaiko Foru Aldundiaren transferentzia bidez jasoko du, 2022ko ekitaldian, hitzarmena sinatu ondoren, energia-efizientziaren arloko jarduketen proiektua gauzatzeko kostuengatik adierazitako zenbateko osoa.

INTERBIAK BIZKAIA, S.A.M.P percibirá de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante transferencia en el ejercicio 2022, una vez firmado el convenio, el importe total indicado por los costes de desarrollo del proyecto de actuaciones en materia de eficiencia energética.

Laugarrena.- Alderdiek hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzeagatiko ondorioak.

Cuarta.- Consecuencias por incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes.

Alderdiek hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baldin badituzte hitzarmena suntsiaraziko da, SPAJL 51.2. artikuluko c) hizkian xedatutakoaren arabera.

El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes dará lugar a la resolución del convenio, conforme a lo dispuesto en la letra c) del artículo 51.2 de la LRJSP.

Bizkaia interbiak

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Hitzarmena suntsiarazten baldin bada, likidatu egingo da ondoren, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko, SPAJL 52. artikuluan aurreikusitako terminoetan.

Ez betetze horien ondorioz alderdi bakoitzak dagokion zenbatekoa itzuli beharko ditu, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Bosgarrena.- Indarraldia

Hitzarmen honen indarraldia 4 urtekoa izango da formalizatzen denetik.

Hitzarmena amaitu aurretik, alderdiek hitzarmena luzatzea erabaki ahal izango dute gehienez ere beste lau urterako (4), ezarri beharreko aldaketa ekonomikoak kontuan hartuta.

Seigarrena.- Hitzarmenaren aldatzeko araubidea.

Hitzarmenaren indarraldian, elkarrekin adostuta aldatu ahal izango da.

**Zazpigarrena.- Hitzarmena betearaztearen eta alderdiek beren gain hartutako konpromisoen jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak.**

7.1.- Jarraipen eta Kontrol Batzordea.

Hitzarmen honen betearazpenaren segimendua, ikuskapena eta kontrola egiteko, Jarraipen Batzordea eratuko da.

Batzorde hori Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko bi ordezkarik eta Interbiak sozietateko bi ordezkarik osatuko dute. Interbiak-eko ordezkariak sozietateak berak zehaztuko ditu, eta enkargu honen kudeaketa juridiko, tekniko eta ekonomikoarekin zerikusia izango dute.

Sailaren ordezkaritzan:

- Berrikuntzarako eta Bide Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiko titularra.
- Bide-sarea Kudeatzeko

La resolución del convenio dará lugar a la liquidación del mismo con objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes, en los términos previstos en el artículo 52 de la LRJSP.

Dicho incumplimiento dará lugar a la obligación de reintegro a las otras partes de la cantidad que corresponda en el plazo máximo de un mes desde que se hubiera notificado a tal efecto.

Quinta.- Periodo de vigencia

El período de vigencia del presente convenio será de 4 años desde su formalización.

Antes de su finalización las partes podrán acordar la prórroga del mismo hasta un plazo máximo de cuatro (4) años más, atendiendo a las modificaciones de carácter económico que, en su caso, sea preciso establecer.

Sexta.- Régimen de modificación.

Durante el plazo de vigencia del Convenio, podrá modificarse de mutuo acuerdo

**Séptima.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por las partes.**

7.1.- Comisión de Seguimiento y Control.

Para el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del presente convenio se constituirá una Comisión de seguimiento.

Dicha Comisión estará formada por dos representantes del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y dos representantes de Interbiak. Los representantes de Interbiak serán aquellos que determine la propia sociedad y que tengan relación con la gestión jurídica, técnica, y económica del presente encargo.

Representarán al Departamento:

- La persona titular de la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria
- La persona titular de la Subdirección de Gestión de la Red Viaria

Zuzendariordetzako titularra.

Ordezkari horiek ez badaude, postu horiek hutsik badaude edo postuan daudenak ordezkoak badira, hurrenez hurren, haiek eskuordetzen dituzten ordezkariak joango dira.

En caso de ausencia, vacancia o suplencia de las citadas personas representantes, les asistirán respectivamente aquellas en quienes deleguen.

Berrikuntzarako eta Bide Kudeaketarako Zuzendari nagusia edo hori ordezkatzen duena izango da Batzordearen lehendakaritzaren arduraduna. Batzordearen Idazkaritzaren arduraduna Interbiak-en ordezkari bat izango da.

El/la Director/a General de Innovación y Gestión Viaria, o persona que la sustituya ostentará la Presidencia de la Comisión. La Secretaria de la Comisión corresponderá a una de las personas que actúen en representación de Interbiak.

Batzordea balio osoz eratzeko, bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria, edo haien ordezkoak eta, gutxienez, kideen erdiak bertan izatea.

Para la válida constitución de la Comisión, a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, se requerirá la asistencia del Presidente/a y Secretario/a o en su caso, de quienes les suplan, y la de la mitad, al menos, de sus miembros.

Jarraipen Batzordea Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan bilduko da, gaur egun Sota Albia eraikinean kokaturikoan: Bilboko Ibañez kalea, 20.

La Comisión de seguimiento se reunirá en la sede de la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria, actualmente ubicada en el edificio Sota Albia, calle Ibáñez de Bilbao, número 20, del municipio de Bilbao.

Presidenteak kalitate botoa izango du berdinketa gertatzen baldin bada.

La presidencia en caso de empate tendrá voto de calidad.

Bertaratzea presentziala edo urrutitik egindakoa izateko aukera egongo da.

La asistencia podrá ser presencial o por medios telemáticos.

Oinarri honetan aurreikusi ez den guztirako Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen artikuluetan administrazio publikoetako organo kolegiatuen funtzionamenduari dagokionez araututakoa ezarriko da.

En todo lo no contemplado en esta base se aplicará los artículos de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, relativos al funcionamiento de los órganos colegiados de las administraciones públicas.

### 7.2.- Konpromisoak justifikatzeko epeak eta erak eta alderdiek gauzatu beharreko jarduketen kontrola

### 7.2.- Plazos y forma de justificación y control de las actuaciones a realizar por cada una de las partes.

Horretaz gain, hitzarmenaren betearazpenaren kontrol eraginkorra eta alderdi sinatzaileek beren gain harturiko konpromisoak bermatzeko, Interbiak sozietateak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu jarduketak amaitzean eta, nolanahi ere, hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen:

Además, para garantizar un control efectivo de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por las partes firmantes, Interbiak deberá aportar a la finalización de las actuaciones y en todo caso antes de la finalización de la vigencia del convenio la siguiente documentación:

a) Hartutako konpromisoak bete izana justifikatzeko jarduketaren memoria, eginiko

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de los compromisos acordados, con

jarduketak eta lorturiko emaitzak bilduko dituena.

b) Hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuen justifikazio-memoria ekonomikoa, hauexek dakartzana:

1. Hitzarmenaren xede den proiektuari egotzitako sarreren eta gastuen egoera-orria.

2. Aurreko 1. atalean adierazitako gastuen orria osatzen duten partidetako bakoitzarentzat, jarduerarren gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, bidalketa data eta, dagokionean, ordainketa data adieraziz.

3. Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten agiriak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurreko lerrokadan aipatutako zerrendan jasota daudenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

4. Zerrenda xehatua, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten dirulaguntzen, laguntzen, sarreren edo baliabideen sarrera-egoera (1. atalen adierazitakoa) osatzen duen partida bakoitzeko, hala badagokio, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Zortzigarrena.- Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau jarduerak ez betetzeagatik edo ebazteko arrazoiren batengatik azkenduko da.

Hitzarmena azkentzeko arrazoiak hauek izango dira:

a) Indarraldia bukatzea hitzarmena luzatzeko erabakirik hartu gabe.

b) Sinatzaileek aho batez hartutako erabakia.

c) Sinatzaileetakoren batek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

d) Epaileak hitzarmena deuseza dela adieraztea.

indicación de las actuaciones realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una memoria económica justificativa de los gastos derivados de la ejecución del convenio, que contendrá:

1. Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto objeto del convenio.

2. Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado 1. anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

3. Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

4. Una relación detallada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos señalado en el apartado 1 anterior, de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, en su caso, que hayan financiado la actividad con indicación del importe y su procedencia.

Octava.- Extinción del convenio.

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

Son causas de resolución:

a) El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguna de las firmantes.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Aurrekoak ez diren eta legeetan ezarrita dauden bestelako arrazoiengatik.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena azkentzearen ondorioak.

Hitzarmena amaituta eta/edo ebatzita, likidazioa egingo da, alderdi bakoitzak bere betebeharrak eta konpromisoak bete dituen aztertzeko.

Sinatzaileek ekarpenak egiteko konpromisoa hartu dutenez, ekarpen horiek ezingo dira hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak baino altuagoak izan.

Likidazioa egindakoan, Interbiak egindako jardueren zenbatekoa Bizkaiko Foru Aldunditik hori finantzatzeko jaso duena baino txikiagoa bada, beste laguntza edo diru-sarrera batzuekin batera zenbatuta, gehiegizko dirua itzuli egin beharko du. Horretarako, hilabete bat (1) izango du likidazioa onartzen denetik.

Hilabete (1) hori igarotakoan dirua ez badu itzuli, une horretatik hilabete bateko (1) epean aipatutako itzultzeari aplikatu behar zaion berandutze interesa ere ordaindu beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari. Hala ere, gastu publikoa eta sektore publikoaren ekonomia eta finantza jarduera arautzen dituzten xedapen orokorretan jasotzen dena izango da.

Hamargarrena- Alderdien laguntzeko betebeharra.

Interbiak-ek hitzematen du Bizkaiko Foru Aldundiak xede horretarako egin ditzakeen kontrol-eginkizunetan lagunduko duela, bai hitzarmenaren kudeaketa-saileko organoen bidez, bai, hala badagokio, Ogasun eta Finantza Sailaren kontrol-organoaren bidez.

Hamaikagarrena.- Datu pertsonalen babesa

Sinatzaileek honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute: alde batetik, "Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en las leyes.

Novena - Efectos de la resolución del convenio.

Cumplido y/o resuelto el convenio, se llevará a cabo su liquidación con el objeto de determinar el cumplimiento de las obligaciones y compromisos de cada una de las partes.

Las aportaciones que se comprometen a realizar los firmantes no podrán ser superiores a los gastos derivados de la ejecución del convenio.

Si de la liquidación resultara que el importe de las actuaciones ejecutadas por Interbiak fuera inferior a los fondos que la misma hubiera recibido de la Diputación Foral de Bizkaia para financiar dicha ejecución, en concurrencia con otras ayudas e ingresos, aquélla deberá reintegrar el exceso que le corresponda en el plazo de un (1) mes desde la aprobación de la liquidación.

Transcurrido el plazo de un (1) mes, sin que se haya producido el reintegro, se deberá abonar a la Diputación Foral de Bizkaia también en el plazo de un (1) mes a contar desde ese momento el interés de demora aplicable al citado reintegro, que será en todo caso, el que resulte de las disposiciones de carácter general reguladoras del gasto público y de la actividad económico-financiera del sector público.

Décima- Obligación de colaboración de las partes.

Interbiak se compromete a colaborar en las funciones de control que al efecto pudiera llevar a cabo la Diputación Foral de Bizkaia, bien a través de los órganos del departamento gestor del convenio, y en su caso, del órgano de control del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Undécima.- Protección de datos de carácter personal.

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el "*Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las*

apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa"; bestetik, abenduaren 5eko 2/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Hori guztia eranskin gisa aurkeztutako lankidetza hitzarmen honen datuak babesteko dokumentazio juridikoarekin bat etorriz.

*personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales"* y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, conforme a la documentación jurídica en materia de protección de datos del presente convenio de colaboración que se acompaña como Anexo.

Hamabigarrena. - Gardentasuna

Alderdi sinatzaileek Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotako publizitate aktiboarako betebeharrak eta informazio publikorako eskubidea beteko dituzte.

Duodécima. - Transparencia

Las partes firmantes cumplirán con las obligaciones de publicidad activa y derecho de acceso a la información pública recogidas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Hamahirugarrena.- Emakumeen eta gizonen berdintasuna.

Esku hartzen duten alderdiek genero-ikuspegia txertatuko dute hitzarmenarekin lotuta egin beharreko jarduketa guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

Decimotercera. - Igualdad mujeres y hombres.

Las partes intervinientes incluirán la perspectiva de género en todas las actuaciones que les corresponda realizar en relación con el convenio, conforme a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Hamalaugarrena.- Hizkuntza-araubidea

Esku hartzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute Euskararen erabileraren normalizaziorako azaroaren 24rako 10/1982 oinarrizko Legean ezarritakoa betetzeko eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dituzte jardueraren ondorioz jendaurrean egiten diren hitzaldi guztietan.

Decimocuarta - Régimen lingüístico.

Las partes intervinientes se comprometen al cumplimiento de lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, por lo utilizarán las dos lenguas oficiales en todas las intervenciones públicas resultantes de la actuación.

Hamabosgarrena.- Irisgarritasuna sustatzea

Esku hartzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute indarreko araudian irisgarritasuna sustatzeko aurreikusten diren neurriak hartzeko, bereziki arkitektura-oztopoak kentzeari eta komunikazio sistemen irisgarritasunari dagokienez.

Decimoquinta.- Promoción de la accesibilidad

Las partes intervinientes se comprometen a la adopción de las medidas de promoción de la accesibilidad contempladas en la normativa en vigor, especialmente, en lo relativo a la eliminación de las barreras arquitectónicas y de accesibilidad en los sistemas de comunicación.

Hamaseigarrena.- Araubide juridikoa

1.Lankidetza hitzarmen hau administratiboa da,

Decimosexta - Régimen jurídico.

1. El presente convenio de colaboración tiene

SPAJLn aurreko tituluaren VI. kapituluan xedatutakoarekin bat etorriz.

naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la LRJSP.

2. Hitzarmen hau idazteko, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren maiatzaren 2ko 836/2019 Foru Aginduan xedatutakoa hartu da kontuan. Horren bidez, SPAJLk atariko tituluaren VI. kapituluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuak 43. eta 44. artikuluetan ezarritako hitzarmenen espedienteak izapidetzeko dokumentu ereduak ematen dira (169/2014 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina garatzen duena).

2. Para la redacción de este convenio se ha tenido en consideración lo dispuesto en la OF 836/2019, de 2 de mayo, del Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, por la que se dictan modelos de documentos para la tramitación de expedientes que correspondan a los convenios previstos en los artículos 43 y 44 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria (en adelante, DF 169/2014) y en el Capítulo VI del Título Preliminar de la LRJSP.

3. Hitzarmena garatu eta gauzatu bitartean aldeen artean sortzen diren eta 7.1. klausulan ezarritako Jarraipen eta Kontrol Batzordean ezin ebatzi daitezkeen auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren menpe jarriko dira, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatu denarekin bat.

3. Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la cláusula 7.1, se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa.

4. Lankidetza hitzarmen honetan ezarrita ez dagoen beste guztirako, SPAJL beteko da, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko Foru Arau orokorraren testu bategina (abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak eta 169/2014 Foru Dekretuak onetsia), bai eta aplikatu daitekeen beste edozein xedapen ere.

4. Para todo lo no previsto en el presente convenio de colaboración será de aplicación la LRJSP, el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, aprobado mediante Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, y por el DF169/2014, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela frogatzeko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

En prueba de conformidad, se formaliza y firma por duplicado el presente convenio, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN izenean /Por la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.

IMANOL PRADALES GIL

INTERBIAK BIZKAIA, S.A.M.P. SOZIETATEAREN izenean/Por INTERBIAK BIZKAIA, S.A.M.P.

MIKEL IRIONDO BILBAO

ERANSKINA: Datu pertsonalen tratamendua /
ANEXO Tratamiento de datos personales

| DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA<br>2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) ETA DATUEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEARI BURUZKO 3/2018 DBLO<br>INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS<br>REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018 | |
|---|---|
| Datuen tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak | Responsable del tratamiento y contacto |
| Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia<br>Ibañez de Bilbao kalea, 20 – 48009 Bilbo | Dirección General de Innovación y Gestión Viaria<br>Ibáñez de Bilbao, 20 – 48009 Bilbao |
| Datuen tratamenduaren eragilea | Persona encargada del tratamiento |
| INTERBIAK BIZKAIA SAMP | INTERBIAK BIZKAIA SAMP |
| Datuen babeserako ordezkaria | Persona delegada de Protección de Datos |
| Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atala (Herri Administrazioko eta Erakunde Harremanetarako Saila). | Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos (Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales). |
| Kale nagusia, 25 – 48009 Bilbo | Gran Vía, 25 – 48009 Bilbao |
| Pertsona interesdunaren eskubideak | Derechos de la persona interesada |
| Interesatuak/eraginpekoak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita horiek tratatzeko mugak jartzeko edo horren aurka agertzeko ere, eta horretarako, Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atalari zuzendutako idatzia aurkeztu beharko du hemen: | La persona interesada podrá acceder a sus datos, solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento, y oponerse a este presentando un escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en: |
| • Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro nagusia (Laguntza, Herritarren erregistro eta arreta bulegoa: Diputazio kalea, 7 – 48008 Bilbo) | • Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina Registro y Atención Ciudadana. Laguntza: C/ Diputación, 7-48008 Bilbao) |
| • Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarrentzako Arretarako Eskualde Bulegoak | • Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia |
| • Bizkaiko Foru Aldundiko sailen erregistro orokorrak. | • Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia |
| • 39/2015 Legean aurreikusitako lekuetan. | • Lugares previstos en la Ley 39/2015 |
| Interesatuak era berean eskubidea du dagokion Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamazioak egiteko. | La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente (Agencia Vasca de Protección de Datos). |
| Tratamenduaren helburua | Finalidad del tratamiento |
| energia-efizientziaren arloko jarduketen proiektuaren garapena | Desarrollo del proyecto de actuaciones en materia de eficiencia energética. |
| Datuen tratamenduaren jarduerak | Actividades del tratamiento de datos |
| Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu: | El tratamiento de los datos personales comprenderá: |

| | |
|---|---|
| Datuak atzematea | |
| Datuak grabatzea | X |
| Datuak egituratzea | X |
| Datuak aldatzea | |
| Interesdunekin harremanetan jartzea | X |
| Datuak biltegiratzea | X |
| Datuak ateratzea (berreskuratzea) | X |
| Datuak kontsultatzea | X |
| Datuak lagatzea / zabaltzea | X |
| Datuak interkonektatzea (gurutzatzea) | X |
| Datuak erkatzea (egiaztatzea) | X |
| Datuak suntsitzea | X |
| Tratamenduaren eragilearen informazio-sistemetan datuak kontserbatzea | X |
| Datuen aldi baterako kopiak egitea | X |
| Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuen berreskuratzea | X |
| Beste batzuk (*zehaztu*) | |

| | |
|---|---|
| Captura de datos | |
| Grabación de datos | X |
| Estructuración de datos | X |
| Modificación de datos | |
| Puesta en contacto con personas interesadas. | X |
| Almacenamiento de datos | X |
| Extracción de datos (recuperación) | X |
| Consulta de datos | X |
| Cesión / difusión de datos | X |
| Interconexión (cruce) de datos | X |
| Cotejo (comprobación) de datos | X |
| Destrucción de datos | X |
| Conservación de datos en sistemas de información de la persona encargada de tratamiento | X |
| Copias temporales de datos | X |
| Copias de seguridad de los datos, recuperación de datos | X |
| Otros (especificar) | |

| Tratamenduaren legitimazioa | Legitimación del tratamiento |
|---|---|
| Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Arlo Publikoaren Araubide Juridikoa. | Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público |
| **Datu pertsonalen kategoriak** | **Categorías de datos personales** |

| IDENTIFIKAZIO-DATUAK: | |
|---|---|
| NAN / IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala | X |
| Izen-abizenak | X |
| Posta-helbidea | X |
| Telefonoa | X |
| Sinadura | X |
| Nazionalitatea | X |
| Jaioteguna | X |
| Jaioterria | X |
| Adina | X |
| Egoera zibila | X |
| Helbide elektronikoa | X |
| Sexua | X |
| Gizarte Segurantzako zenbakia | |

| DATOS IDENTIFICATIVOS: | |
|---|---|
| D.N.I. /N.I.F. / Documento de Identificación Oficial | X |
| Nombre y Apellidos | X |
| Dirección postal | X |
| Teléfono | X |
| Firma | X |
| Nacionalidad | X |
| Fecha Nacimiento | X |
| Lugar de nacimiento | X |
| Edad | X |
| Estado Civil | X |
| Correo electrónico | X |
| Sexo | X |

| | |
|---|---|
| Irudia (argazkiak edo bideoak) | X |
| Soinuak (audio-grabaketak) | |
| Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instragram profilak, besteak beste) | |
| Seme-alaba kopurua | |
| Ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua, taila, besteak beste) | |
| Beste batzuk (*zehaztu*) | |
| BESTE DATU MOTA BATZUK | |
| Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste) | x |
| Lanbide-esperientzia -edo -historia | x |
| Lanbidea | x |
| Lanpostua edo lanbide-kategoria | x |
| Lizentziak edo baimenak | x |
| Elkarte, klub edo bestelakoetan kide izatea | |
| Jabetza edo ondasunak | |
| Ekonomikoak, finantzarioak edo aseguruenak (banku-datuak, kontu korrontea, txartel-zenbakia, zergei, soldatei, subsidioei buruzko datuak, besteak beste) | |
| Informazio komertzialerako datuak (jarduerak, negozioak, besteak beste) | X |
| Transakzioei buruzko datuak (interesdunak eskainitako ondasun edo zerbitzuak, interesdunak jasotako ondasun edo zerbitzuak, besteak beste) | |
| Administrazioko arau-hausteen datuak | |
| Zigor arau-hausteei buruzko datuak | |
| Beste batzuk (*zehaztu*) | |
| DATUEN KATEGORIA BEREZIAK (DBEO 9. art.) | |
| Etnia- edo arraza-jatorria | |
| Iritzi politikoak | |
| Sinesmen erlijiosoak edo filosofikoak | |
| Sindikatu-afiliazioa | |
| Datu genetikoak | |

| | |
|---|---|
| Nº de la Seguridad Social | |
| Imagen (Fotografías o videos) | X |
| Sonidos (Grabaciones de audio) | |
| Redes Sociales (Perfil Twitter, Facebook, Instagram, entre otros) | |
| Número de hijos o hijas | |
| Características personales (Altura, peso, talla, entre otros) | |
| Otros (*especificar*) | |
| OTRO TIPO DE DATOS | |
| Datos de formación (Títulos, Académicos, diplomas, entre otros) | X |
| Experiencia o Historial profesional | X |
| Profesión | X |
| Puesto de trabajo o categoría profesional | X |
| Licencias, permisos o autorizaciones | x |
| Pertenencia a Asociaciones, Clubes, entre otros | |
| Propiedad o posesiones | |
| Económicos, Financieros y de Seguros (Datos Bancarios, Cuenta Corriente, Número de Tarjeta, datos sobre Tributos, Sueldos, Subsidios, entre otros) | |
| Datos de información comercial (Actividades, Negocios, entre otros) | X |
| Datos de transacciones (Bienes o servicios ofertados por la persona interesada, bienes o servicios recibidos por la persona interesada, entre otros) | |
| Datos sobre infracciones administrativas | |
| Datos sobre infracciones penales | |
| Otros (*especificar*) | |
| CATEGORÍAS ESPECIALES DE DATOS (art. 9 RGPD) | |
| Origen étnico o racial | |
| Opiniones políticas | |
| Convicciones religiosas o filosóficas | |
| Afiliación sindical | |

| | |
|---|---|
| Pertsona fisiko bat adiera bakarrean identifikatzera bideratutako datu biometrikoak | |
| Osasunari buruzko datuak | |
| Sexu-bizitzari edo sexu-joerei buruzko datuak | |

| | |
|---|---|
| Datos genéticos | |
| Datos biométricos dirigidos a identificar de manera unívoca a una persona física | |
| Datos relativos a la salud | |
| Datos relativos a la vida sexual o las orientación sexuales | |

## Pertsona interesdunen kategorien deskribapena

## Descripción de las categorías de personas interesadas

| | |
|---|---|
| Herritarrak | |
| Adingabeak *(14 urte, DBEDBLO 7. art.)* | |
| 65 urtetik gorako pertsonak | |
| Egoiliarrak | |
| Bezeroak | X |
| Hornitzaileak | X |
| Atxikitako pertsonak edo kideak | |
| Jabeak edo errentariak | X |
| Ikasleak | |
| Legezko ordezkariak | X |
| Harremanetarako pertsonak | X |
| Eskatzaileak | X |
| Onuradunak | |
| Langileak | X |
| Enplegu-eskatzaileak | |
| Kargu publikoa duten pertsonak | |

| | |
|---|---|
| Ciudadanía | |
| Menores *(14 años, art 7 LOPDGDD)* | |
| Personas mayores de 65 años | |
| Personas Residentes | |
| Personas Clientes | X |
| Personas Proveedoras | X |
| Personas Asociadas o Miembros | |
| Personas Propietarias o Arrendatarias | X |
| Personas Estudiantes | |
| Personas Representantes Legales | X |
| Personas de Contacto | X |
| Personas Solicitantes | X |
| Personas Beneficiarias | |
| Personas Trabajadoras | X |
| Personas Demandantes de Empleo | |
| Personas con Cargos Públicos | |

## Datuen jatorria

Trataturiko datu pertsonalak hemendik datoz:

## Origen de los datos

Los datos personales tratados proceden de:

| | |
|---|---|
| Interesdunak edo beren ordezkariak. | X |
| Administrazio publikoak *(Zehaztu)*: | |
| Erregistro publikoak *(Zehaztu)*: | |
| Sektore publikoko beste erakunde batzuk *(Zehaztu)*: | |
| Beste batzuk *(Zehaztu)*: | |

| | |
|---|---|
| Propias personas interesadas o su representante | X |
| Administraciones Públicas *(Especificar)*: | |
| Registros Públicos *(Especificar)*: | |
| Otras entidades del Sector Público *(Especificar)*: | |
| Otras *(Especificar)*: | |

## Datuen hartzaileak

Ez da datu pertsonalak lagatzeko aukera aurreikusten.

## Personas destinatarias de los datos

No se contempla la posibilidad de cesión de datos personales.

| Datuak kontserbatzeko epea | Plazo de conservación de los datos |
|---|---|
| Datuak negozio juridikoak irauten duen artean (luzapenak eta legezko betebeharrak betetzeko aldia aintzat hartuta) gordeko dira. | Se conservarán durante el tiempo de vigencia del convenio, incluidas las prórrogas y posterior cumplimiento de obligaciones legales. |
| Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea | Disposición de los datos al terminar el tratamiento de datos |
| Datuen tratamendua amaitzen denean, Interbiak tratamenduaren arduradunari (edo horrek beren-beregi idatziz izendaturiko pertsonari) datu pertsonalak itzuli beharko dizkio, bai eta, bidezkoa izan ezkero, datuak gordetzeko erabilitako euskarriak ere, behin prestazioa beteta. Itzulketak berarekin ekarri behar du datuen tratamenduaren eragileak erabilitako ekipo informatikoan dauden datu guztien ezabaketa osoa. Edozelan ere, datuen tratamenduaren eragileak kopia bat gorde dezake, behar bezala blokeatutako datuekin, prestazioaren betearazpenetik erantzukizunak sortu daitezkeen bitartean. | Una vez finalice el tratamiento de datos, Interbiak deberá devolver a la persona responsable del tratamiento (o a la persona designada por ésta de manera expresa por escrito), los datos personales y, si procede, los soportes donde consten, una vez cumplida la prestación. La devolución debe comportar el borrado total de los datos existentes en los equipos informáticos utilizados por la persona encargada del tratamiento. No obstante, la persona encargada del tratamiento puede conservar una copia, con los datos debidamente bloqueados, mientras puedan derivarse responsabilidades de la ejecución de la prestación. |
| Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra | Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad |
| Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren arabera. | Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica. |